

Enpresaren izena:

PROVA

Zerbitzuaren izena:**Slogan:**

Tu educación siempre a tu disposición

Nortzuk gara?

Olabide Ikastolako ekonomia, ekintzailtza eta enpresa jarduera ikasgaiiko batxiler lehenengo mailako ikasleak gara, Paula Quintana, Aner Mendiguren, Eneko Martinez, Mikel Ortiz eta Olaia Solchaga gara. Ikasgai hau aukeratu dugu hautazko bezala; izan ere, oso interesatuta gaude enpresa eta ekonomia sektoreetan. Eta guk PROVA enpresaren jabeak gara.

Gure zerbitzuaren deskribapena:

Guk eskaintzen dugun zerbitzua web bat da, web horretan komunitate autonomo bakoitzeko eskola edo ikastola guztietan erabiltzen diren liburu interaktiboak egongo dira. Honez gain, web honetan, besteen apunteak ikusi ahalko dituzu eta zure apunteak ere publikatu ahal dituzu. Gainera, apunteak publikatzen badituzu eta jende asko zure apunteak ikusten eta erabiltzen baditu dirua ordainduko dizugu.

Helburua:

Gure helburua da eskolan liburuak utzi dituzten ikasleek, ikasteko eta ariketak egiteko aukera izatea. Adibidez, ikasle bat bazara eta bihar azterketa bat baduzu, baina azterketako ikasgaiaren liburuak eskolan utzi dituzu, gure web-an Espainiako eskolen liburu guztiak dituzunez, hortik ikasi ahalko duzu eta ikasteko liburuko ariketak egin ahalko dituzu. Beraz, azterketarako ikasi ahalko duzu eta gaintitu ahalko duzu. Gainera, gure aplikazioan beste pertsona batzuk argitaratzen dituzten apunteak ikusi ahalko dituzunez, ez dituzu apunte propioak egin behar edo nahi baduzu, zure apunteak publikatu ahal dituzu eta jende asko erabiltzen baditu konpentsatzen dizugu.

Balio proposamena:**ARAZOA:**

Gure zerbitzuarekin ikasleen eskolan, liburua edo liburuak utzi dituztenak, ikasteko eta ariketak egiteko aukera eukitzea.

BERRITASUNA:

Gure zerbitzua oso berritzailea da, gaur egungo ia gauza guztiak egiteko Interneta erabiltzen delako, gure belaunaldirako sinpleagoa delako. Munduko ia ikasle guztiak teknologia erabiltzen dutenez, gure produktua egokitu da beraien gustuetara.

FUNTSEZKO FAKTOREAK:

Gure web zerbitzuak azkarra, berritzailea, segurua, sinplea erabilera erraza eskaintzen die gure bezeroei. Guztion eskura dago, gure zerbitzua gastei zuzenduta dagoen arren. Zerbitzu hau kategoria ezberdinak ditu bere barruan. Hau da, zerbitzu honek zure ikastetxeko edo unibertsitateko liburuak eukitzeaz gain, jarduerak egin ditzakezu eta baita zure oharrak sortu eta saldu ere.

Espainia osoko ikastetxe guztietako liburu guztiak biltzen dituen webgunea da. Hori dela eta, gazte espainiar guztiak gure webgunean dute euren eskola-materiala. Eta, webgunean dituen hezkuntza-dukien inguruko eguneratzeei dagokienez, berriki balego, aldatzeaz arduratuko gara.